



Bihotz
Gaztea
Ikastola

BIHOTZ GAZTEA IKASTOLAREN

BARNE-ARAUDIA

SARRERA

Ikastolaren barne-araudi hau ***“Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruz” abenduaren 2koa den 201/2008 dekretuan*** oinarritzen da eta bertan dauka abiapuntua.

Dekretu honen helburua honako hau da: ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetza-esparrua arautzea, gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezen. Bizikidetza positiboki bultzatzean datza.

Dekretu honek eskubideen eta betebeharren urraketak mailakatu egiten ditu, bere larritasunaren arabera, hiru kategoriatan hurrengo irizpidea kontuan izanik: *jokabide horiek zer neurritan zailtzen edo eragozten dien Hezkuntza Komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko aukera*. Hauek dira:

- Jokabide desegokiak.
- Bizikidetzaren kontrako jokabideak.
- Bizikidetza larriki kaltetzen duten jokabideak.

Jokabide horien zuzenketari dagokionez, ikastolan, dekretu honen helburua den moduan, neurri hezigarrien aldeko apustua egiten da eta, aldi berean, helburu hezigarria sustatzeko, lehentasuna ematen zaio *bizikidetza-gatazkak konpontzeko adiskidetzaren eta kaltea konpontzearen mekanismoak* baliatzeari: jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak izendatzen direnak aipatutako dekretuan.

Neurrien izaera hezigarria sustatzeko mekanismoen barnean, familia-ingurunea neurri zuzentzaileak betetzeari lotzeko aukera aprobetxatu nahi da ere. Gurasoek edo legezko ordezkariak seme-alaben hezkuntzan duten erantzukizuna errespetatzeko helburuz ezarri da aukera hori.

Orain argibide batzuk araudi hau ondo ulertzeko:

Zein etapatan aplikatuko da?

Hemen aurkezten den araudia LHko 3 zikloan eta DBH etapa osoan aplikatuko da gure ikastolan ohiko moduan.

Kasu berezietan, gertatutakoaren larritasunak horrela eskatzen duela pentsatzen delako, LHko 2. zikloan ere indarrean jarri daiteke.

Zein da zuzentzeko jokabideen aplikazio-eremua?

Araudi honen aplikazioa ikastola-jarduerari dagokio honekin horrela ulertu behar dela:

- Ordutegi lektiboaren barruan ikastolan ematen dugun denbora.
- Ordutegi lektiboan zein kanpokoan ikastolarekin burutzen ditugun ikastolaz kanpoko jarduerak (irteerak, koloniak, ikasketa-bidaia,...).
- Ikastola-garraioa eta Ikastola jantoki-jarduera.
- Ikastolaz kanpoko ordutegia zein eremua, gertatutakoak ikastola-jarduerarekin zuzenki lotuta daudela frogatzen den kasuetan.

Zein da Hezkuntza-komunitateko kidea?

Araudian agertzen den termino honek ikastolan eta ikastola-jardueretan parte hartzen dugun guztiok hartzen gaitu: ikasleok, irakasleok eta ez-irakaslego pertsonala.

Bere baitan hartzen ditu ere jantokian eta jantoki-zaintzetan, eskolaz kanpoko ekintzetan eta garraioan arduradun diren pertsonak; eta modu berean irteerak eta kolonietan jardueretaz arduratzen diren monitoreak eta pertsonala orokorrean hezkuntza komunitateko kideztzat hartuko ditugu jarduerak irauten duten bitartean.

Gurasoak ere ikastolan parte hartzen duten neurrian Hezkuntza-komunitateko kide izango dira.

Zein da Agintari akademikoa?

Araudian agertzen den termino honek zera adierazi nahi du: ikastolan ematen duten denboran eta ikasleekin burutzen diren ekintzetan ekintza beraiek zuzentzen dituzten eta ikasleen ardura duten pertsona nagusiak.

Kasu ohikoetan agintari akademikoa izango dira:

- Irakasleak eta zuzendaritza izango dira.

Baina baita ere, burutzen diren ekintzak eta egoerak kontuan izanik, hurrengo hauek:

- Ikastolako ez-irakaslego pertsonala (eskolaz kanpoko ordutegiaren kasuan, adibidez).
- Jantokiko arduradunak eta monitoreak.
- Eskola-garraioko arduradun eta monitoreak.
- Ikastolan bertan zein irteeretan eta kolonietan jardueretaz arduratzen diren kanpoko monitoreak (ikastolako irakasleok ikasleen erantzukizuna badute ere, horiek jardueraren gaineko autoritatea daukate).

Araudia ikastola-komunitatearen artean ezagutarazi behar da.

Ikastolaren araudia Hezkuntza komunitateko kide guztiek ezagutu behar dute horretarako ikastolak jarriko dituela baliabideak. Hauek, beste batzuen artean, hurrengoak izango dira:

- Araudia ikastolaren web-orrian eskegita egongo da.
- LHko 5. mailako Ikasturte hasierako guraso bilera orokorretan araudiaren aurkezpen orokorra egingo da.
- LHko 5. mailako ikasleei, ikasturte hasierako bilera orokor batean araudia aurkeztu eta azalduko zaie.
- LHko 3 zikloAN eta DBHn araudia tutoretza-orduetan landuko da.

1) ZEINTZUK DIRA IKASLEEN ESKUBIDEAK?

- 1) Beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea.

Hezkuntza ez da soilik arlo akademikoetan ematen denarekin lotzen eta ikaslearen garapena harmoniatsua lortzearen bestelako aspektuak jorratu behar dira ere: autonomia pertsonala, afektibotasuna, euskaltzaletasuna, ...

- 2) Ikasle adingabeen kasuan, ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea.

Kasu guztietan, eta oro har, ikastetxeek eta bertako irakasleek edozein ikasle adingaberi behar duen arreta eman behar diote berehala, zuzenean jardunez beren eskumenen eremuari badagokio edo bestela ikasle horren kasua eskumena duen organo edo zerbitzuaren eraginpean jarritz. Era berean, gertakizunen berri emango diete berehala adingabearen gurasoei edo legezko ordezkariari, edo, beharrezkoa denean. Fiskaltzari.

- 3) Ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea.

Eta inork ikasleek duten eskubide horiei eraso edo kalte egin ez diezaie behar diren neurriak hartuko dituzte ikastolako gobernu-organismoek.

- 4) Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.

Ikastolak ezarri beharko du ikaslearen ebaluazioaren gainean eragina izan duten lan, ariketa eta proba guztiak berrikusteko aukera baimenduko duen barne-prozedura. Baita ere, azken kalifikazioen aurkako erreklamazioa jartzekoa.

- 5) Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.

- 6) Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea.

Ikasleek zalantza-izpirik gabe jakin behar dute unean-unean (gelan, patioan, ikastolarekin egindako kanpoko jardueretan...) zer irakaslerengana edo ikastetxeko zer arduradunengana edo zer agintari akademikorengana jo dezaketen edozein eraso fisiko edo moralen aurka eskubidez dagokien babesa lortzeko.

- 7) Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak eta sinesmen moral eta ideologikoak errespetatu diezazkieten.

- 8) Ikastetxetan biltzeko eskubidea.

Ikasleek elkartzeko eskubidea dute eta, horretarako, elkarteak, federazioak eta konfederazioak sortu ahal izango dituzte.

Antolaketa eta jarduera edo barne araudiek arautuko dituzte biltzeko eskubidea gauzatzeko era, ordutegia, espazioak eta tokiak, baita aldez aurretik eman beharreko baimenak, jakinarazpenak edo parte-hartzaileak ere. Horretarako, bilera horiek irakatsi eta ikasteko jardueretan izan dezaketen eragina hartuko da kontuan.

9) Ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea.

Modu orokorrean DBHtik etapatik aurrera ikasleek gelako ordezkariak izango dituzte. Eskola Kontseiluan ere ordezkariak izango dute. Ikasleen Organo Gorena sortuko da, geletako ordezkariak eta ikasleen batzordeetako ordezkariak Eskola Kontseiluko kideekin bilduko dituena.

10) Informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea.

11) Aukera-berdintasunerako eskubidea.

Ohikoa ez den hezkuntza-arreta behar duten ikasleei arreta berezia emango zaie.

12) Gizarte-babeserako eskubidea.

Ikastetxeek babes-neurriak hartu beharko dituzte berdinen arteko tratatu txarren kasuetan, eta bereziki jazarpen sexitaren kasuetan.

13) Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

2) ZEINTZUK DIRA IKASLEEN BETEBEHARRAK?

1) Ikasteko eta al bait gehien garatzen ahalegintzeko betebeharra.

Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak ahalik eta gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea.

Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera

2) Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

Ikasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, nola eskolan egiten direnetan hala osagarrietan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeen lagunduz.

3) Bertaratzeko betebeharra.

Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irtekeko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

4) Bizikidetza errazteko betebeharra.

Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko.

Horretarako, beren ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Bizikidetza Arauak zeintzuk diren jakin behar dute.

Ikasleek derrigorrean eman beharko dute laguntza elkarbizitzaren kontrakoak diren eta berorri kalte handia egiten dioten portaerak zuzentzeko neurriak aplikatzeko prozesuan eta lekuko gisa deklaratu beharko dute, zuzendariak edo instrukzioaz arduratzen den edozein irakasle horretarako deitzen baditu.

5) Hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatzeko betebeharra.

Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte.

Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira.

Kasu horietan ere ikasleek ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

6) Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

Ikasleek eskubideez gain, ikastetxearen antolaketa-, bizikidetza- eta diziiplina-arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte.

Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

7) Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

Ikasleek ikastetxeko instalazioak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute.

Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo ere.

Era berean, hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

3) **Beraien betebeharrak betetzen ez dituztenean JOKABIDE DESEGOKIA izaten ari dira.**

3.1) **Zeintzuk dira JOKABIDE DESEGOKIAK?**

a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.

Hirugarren aldiz klase-ordu batera justifikatu gabe berandu heltzea.

b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.

Klase-ordu batera inolako justifikaziorik (idatzizkoa) aurkeztu gabe ez etortzea.

c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.

d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziiplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.

Ikasleak ez du irakasle batek edo ikastolako edozein langilek emandako agindua bete hurrengo baldintzetan:

- *Agindua ez betetzeko asmoa ageri da.*
- *Agindua ikasleak egindako huts baten ondorioa izan da (ad: egon behar ez den tokian dagoela dagokion tokira joateko esaten zaio).*
- *Agindua kaltetutako egoera bat konpontzeko eman da, kaltearen erantzukizuna ikaslearena izan ala (erantzukizuna argi ez dagoen kasuetan) ez izan (ad: gelan botatako paperak jasotzeko agindua ematen zaio)*
Aginduak ez dauka lotura zuzenik arlo akademikoarekin (etxeko lanak ez betetzea ez genduke hemen sartuko, adibidez).

- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastola barruan zein eskolaz kanpoko jardura akademiko guztietan, gobernu-organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ezin daitezke erabili, irakaslearen edo momentuan jardueraren ardura duen agintari akademikoaren (begiraleak, langile ez irakasleak...) baimenarekin ez bada; aparatu guztiak, ekartzekotan, itzalita egon behar dira. **Erloju adimenduak ezin dira ikastolara ekarri.**
- g) Ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.

Beti ere:

- *Kaltetu egiten ez direla suposatuz..*
 - *Beste ataletan deskribatutako beste jokabide desegokiren bat ez dela sortu suposatuz.*
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
(Ikasleak esandako gezurra baten aurrean irakasleak beti ohartaraziko du ahoz, hausnarketa bultzatuz eta jokabide desegokia izan dela ikus eta onar dezan.)
 - *Ikasleak bere agendan, irakasleak jarritako ohar batean, gurasoen sinadura faltsutu du.*
 - *Ikastolako edozein langilek etxekoek gertatutako zerbaiten berri izateko asmoz bidalitako ohar batean ikasleak gurasoen sinadura faltsutu du.*
 - i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
 - *Ikaslea azterketa batean harrapatua izan da kopiatzen (liburutik, txuleta batetik zein beste ikaskideren baten azterketatik) edo harrapatua izan da bere ikaskide bati kopiatzen uzten.*
 - *Ikasleak kalifikaziorako baliogarria den ebaluazio-jardura bat edo horren zati bat bere ikaskide bati kopiatu dio edo bere ikaskide bati kopiatzen utzi dio.*
 - j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko bizikidetza-arauei edo gobernu-organoen jarraibideen aurka.
 - k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka edo baimenik gabe.
 - *Beti ere:*
 - o *Kaltetu egiten ez direla suposatuz.*
 - o *Beste ataletan deskribatutako beste jokabide desegokiren bat ez dela sortu suposatuz.*
 - l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere besteei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetza horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

3.2) Nola zuzentzen dira?

Irakasleen edo momentuan jarduera gidatzen duen agintari akademikoaren ardura da jokabide hauen zuzenketa.

Aipatuko diren eginbeharreko guztiak dagozkion txosten-ereduak (eranskinetan ikus daitezkeenak) erabiliz burutuko dira. Zuzentzeko neurriak honakoak izan daitezke:

- a) Gertatutakoaren idatzizko jakinarazpena bidaliko da etxera
- b) Izandako jokabidearen hausnarketa egitea
- c) Debekatutako objektuak eta makinak jasoko dira, egun batez.
- d) Kasuen arabera, tutoreak edo beste irakasleren batek gurasoei egoera hauen berri eman.
- e) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean onartzea.
- f) Egindako kaltea erreparatzea.
- g) Eredu egokia ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- h) Jokabide desagokiarekin zerikusia duen zeregin bat egitea.

3.3) Zein da prozedura?

Ikasleak modu desagokian jokatzen duenean:

- a) Irakasleak edo momentuan jarduera gidatzen duen agintari akademikoak ikaslea bere jokabideaz ahoz ohartaraziko du.
- b) Egun berean edo hurrengoan idatzizko jakinarazpena (Barne-araudiaren I eranskina) beteko du eta ikasleari emango dio; jakinarazpen horretan *zer gertatu den eta zein neurri hartu den edo hartuko den adierazi behar direla*. Bi kopia entregatuko dizkio: bat etxean gordetzeko eta bestea, gurasoek sinatuta, ikastolara bueltan ekartzeko.
- c) Ikasleak, hurrengo egunean, gurasoek sinatutako jakinarazpena itzuliko dio eman zion irakasleari edo agintari akademikoari.
- d) Irakasleak edo agintari akademikoak tutoreari entregatuko dio.
- e) Tutoreak “Bizikidetza” karpetan artxibatuko du gelako erregistro-orrian jokabide desagokia izandako eguneko data apuntatuko duelarik.
- f) Ikasleak jarri zaion neurri zuzentzailea bete egin du, jarri dion irakaslearen ardurapean.

4) **Besteon eskubideak oztopatzen dituztenean BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEA izaten ari dira.**

4.1) Zeintzuk dira BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK?

- a) Irakasleak zein ikastolako beste langileak, beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, mespretxuak, mehatxuak, desafioak eta irainak egiten badira sortzen duten errespetu faltagatik.
- b) *Ikaskideen zein ikastolako gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak* keinuak edo jarrerak (*beti ere bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude*). Kalte handirik sortzeko asmo ezean eta arriskutsuak diren egoerak sortu ezean ematen diren erantzun fisikoak (zaplaztekoak, bultzadak, kolpeak,...).
- c) Azterketak lapurtzea edo erantzunak kopiaetzea, eta horiek hedatzea.
- d) Noten buletinetan zein beste dokumentu edo jakinarazpen ofizialetan aldaketak egitea edota beraien erantzuna aldatu edo faltsutzea.
- e) Kalteak eragitea edo kalteak eragin ditzaketen jokabideak izatea, bidegabeko erabileragatik, lokalei, altzariei, dokumentuei edo materialari, ikastetxearena edo ikaskideena izanik (*beti ere bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude*).
- f) Besteen materiala lapurtzea, gertaeran bizikidetzari larriki kaltetzen duen jokabideatzat hartzea ekarriko lituzkeen baldintzak ikusten ez badira.
- g) **I**kasle guztiek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea. Grabazio-baliabideak erabiltzea horretarako baimenik izan gabe (momentuan ikasleen ardura daukan irakaslea edo ikastolako langilea den bestelako pertsona izanik baimena eman ahal dutena).
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ikastolarekin lotura duten jardueretan, bakarka zein taldean, ordena nahastea (*beti ere bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude*).
- j) Lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak erakustea edo erabiltzea.

- k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera... edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal (*beti ere bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude*).
- m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desagokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.
- n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere besteei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean bilduta ez badago"

4.2) Nola zuzentzen dira?

Zuzendariaren menpe edo berak delegatutako pertsonaren menpe, bizikidetzaren arduraduna, dago neurriak hartzeko prozesua.

Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko neurriak, honakoak izan daitezke:

- a) Ikasleari beti emango zaio ohartarazpen idatzia gurasoei zuzendua.
- b) Izandako jokabidearen ondorioei buruzko hausnarketa egitea.
- c) Ohartarazpena zuzendariaren aldetik, elkarriketa bidez, gurasoak bertan egon daitezkeela egoki ikusten den kasuetan.
- d) Denbora batez taldez edo gelaz aldatu.
- e) Lan hezigarriak, edo kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea.
- f) Ikasgai bateko eskolara edo ikastolara etortzeko eskubidea etetea, hiru egunetan gehienez.

- g) Eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez hiruhilekoa amaitu arte, bukatzeaz egotekotan hurrengo hiruhilekoan luza zitekeen.
- h) Jangela edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez hiruhilekoa amaitu arte bukatzeaz egotekotan hurrengo hiruhilekoan luza zitekeen.

4.3) Zein da prozedura?

Aipatuko diren eginbeharreko guztiak dagozkion txosten-ereduak (eranskinetan ikus daitezkeenak) erabiliz burutuko dira.

- a) Irakasleak edo ez dozentek bizikidetza-arduradunari jakinaraziko dio gertatutako jokabidea.
- b) Bizikidetza-arduradunak eta behar izatekotan, zuzendariak egoera aztertu eta espedientearen irekiera erabakiko dute tutoreari jakinaraziko diotela.
- c) Gertaeren gainean informazio falta dagoen kasuetan, ikerketa sakonagoa zabaldu behar delakoan edo jokabidearen larritasunak eta ezaugarriek horrela eskatzen dutenean, zuzendaritzak instruktorea izendatuko du beharrezko argibide guztiak jasoko dituen.
- d) Ikasleari jakinarazpen idatzia entregatzen zaio; bertan zer gertatu den eta zein neurri zuzentzaile proposatzen zaizkion adieraziz; zenbait kasutan zuzendariarekin edo zuzendaria ordezkatzeko duen pertsonarekin (bizikidetza-arduraduna) elkarriketa batera deituko da ikaslea. Egokia ikusten bada gurasoei deituko zaie.
- e) Elkarriketa horretan ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin ahal izango ditu alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak ere. Lekukoen deklarazioak ere bilera honetan kontuan har daitezke.

- f) Ikasleak eta bere gurasoek edo legezko ordezkariak proposatutako neurri zuzentzaileak onartzen badituzte bete egingo ditu eta prozedura bertan behera geldituko da.
- g) Egindakoa eta lortutakoa, idazki batean jasoko da.
- h) Ikasleak eta bere gurasoek edo legezko ordezkariak onartzen ez badituzte Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote. Honek ez dakar neurri zuzentzailea(k) besterik gabe etetea. Dena den, gurasoek edo legezko ordezkariak etetea edo aldi jakin baterako atzeratzea eskatu ahal izango dute, eta Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak erabakia hartu beharko du, kasuan kasuko egoeraren arabera.

5) Besteon eskubideak larriki oztopatzen dituztenean BIZIKIDETZA LARRIKI KALTETZEN DUEN JOKABIDEA izaten ari dira.

5.1) Zeintzuk dira BIZIKIDETZA LARRIKI KALTETZEN DUTEN JOKABIDEAK?

- a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak ere.
- b) Edozein motatakoa eta edozein arrazoiagatik, diskriminazioa adierazten duen iraina egitea.
- c) Jazarpen sexista, horren ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta sentiaraztea bada.
- d) Kidearen aurkako eraso fisikoa / psikologikoa.

- e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitea eta egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea eta kontsumitzera bultzatzea.
- f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idatziz, ikus-entzunezko edo baliabide informatikoen bidez; baita eskola-jazarpeneko jokabideak ere.
- g) Lesioa eragin dezaketen jokabide erasokorrak egitea zein haietan parte hartzea.
- h) Instalazioetan, ondasunetan kalteak nahita eragitea
- i) Diziplinarik eza, biziki iraingarria, edo obediencia-ukatzeko esplikatu guztiak, eta neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea ere.
- j) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean, jangelan, gelan, patioan edo irteeretan, egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- k) Grabazioak egitea, grabazioan agertzen denak horrelakorik nahi ez duela adierazi badu.
- l) Norbaitek beste inoren irudiak eta komentarioak baimenik gabe internet sarean sartzea.
- m) Ikastolako ekintzetan beste edonoren izena erabiltzea.
- n) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada. Ikastolako zein ikaskideen Materiala lapurtzea, erantzunkizuna areagotzen duten baldintzak ikusten badira: nahita eragitea, aurreprestaketa, lapurtutakoaren balio handia,...
- o) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren kontrako aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
 - p) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori besteen eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen

aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte-hartzeko eta norberaren irudirako eskubidea.

5.2) Nola zuzentzen dira?

Zuzendariaren menpe dago neurriak hartzeko prozesua.

Bizikidetza larriki kaltetzen duten jokabideak zuzentzeko neurriak, honakoak izango dira, besteak beste:

- a) Eskola-ordutegitik kanpo lan hezigarriak egitea, edo eragindako kalteak konpontzeko lanak egitea, beti ere , sei hilabetez gehienez.
- b) Arloko eskoletara joateko eskubidea etetea, hiru egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
- c) Ikastolara joateko eskubidea etetea, hiru egunetik hogeira bitartean eta adierazten zaizkion prestakuntza-jarduerak egiteko obligazioa, dagokien irakasleen kontrolpean.
- d) Eskolaz kanpoko jardueretan (irteerak, koloniak, ikasbidaia...) eta jarduera osagarrietan (jantokia, garraioa...) parte hartzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da

5.3) Zein da prozedura?

Aipatuko diren eginbeharreko guztiak dagozkion txosten-ereduak (eranskinetan ikus daitezkeenak) erabiliz burutuko dira.

- a) Irakasleak edo ez dozentek bizikidetza-arduradunari jakinaraziko dio gertatutako jokabidea.

- b) Bizikidetza-arduradunak eta behar izatekotan, zuzendariak egoera aztertu eta espedientearen irekiera erabakiko dute.
- c) Gertaeren gainean informazio falta dagoen kasuetan, ikerketa sakonagoa zabaldu behar delakoan edo jokabidearen larritasunak eta ezaugarriek horrela eskatzen dutenean, zuzendaritzak instruktorea izendatuko du beharrezko argibide guztiak jasoko dituen.
- d) Ikasleari jakinarazpen idatzia entregatzen zaio; bertan zer gertatu den eta zein neurri zuzentzaile proposatzen zaizkion adieraziz; zuzendariarekin elkarrizketa batera deituko dira ikaslea eta gurasoak edo legezko ordezkariak.
- e) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin ahal izango ditu alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak ere. Lekukoen deklarazioak ere bilera honetan kontuan har daitezke.
- f) Ikasleak eta bere gurasoek edo legezko ordezkariak proposatutako neurri zuzentzaileak onartzen badituzte bete egingo ditu eta prozedura bertan behera geldituko da.
- g) Egindakoa eta lortutakoa, idazki batean jasoko da.
- h) Ikasleak eta bere gurasoek edo legezko ordezkariak onartzen ez badituzte Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute. Honek ez dakar neurri zuzentzailea(k) besterik gabe etetea. Dena den, gurasoek edo legezko ordezkariak etetea edo aldi jakin baterako atzeratzea eskatu ahal izango dute, eta Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak erabakia hartu beharko du, kasuan kasuko egoeraren arabera.
- i) Zuzendaritzaren iritziz beharrezkotzat jotzen denean, larritasunagatik, behin behineko zenbait neurri ezarri ahal izango dira ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatuko direla bermatzeko; horien artean ondoko bi hauek leudeke: arlo

batzetara klasera edo ikastolara joatea debekatzea edo ikaslea
behin behinekoz taldez aldatzea.